

**EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK ANTZERKIAN
IPAR EUSKAL HERRIKO TALAIATIK**



Manex Fuchs

***Petit Theatre de Pain* konpainiako antzezlea eta taula zuzendaria**

SARRERA

Antzerkiak bizitasun zerbait izan badu, besteak beste, ahozkoasunetik edan duenari esker izan da. Antzerkia ez da literatura, ez da idazlan bat. Hortik aintzina, ene antzerkilari lanetan hartu ditudan bideetatik abiatuz, ondorio edota antiondorio zorbait ateratzen saiatuko naiz. Zein da antzerkiaren eta euskalkien hartu-emanak? Zertan datza mintzoaren egiatasuna oholta gainean? Galdera handi-mandi horiei jendetasunez erantzun, eta gure herrian trufaka ari zaigun errealitate krudelaz ere eginen dugu solas.

Talaia : «Itsasoko edo lehorreko eremu zabala begiztatzeko erabiltzen den jasogunea edo egiten den dorrea»
Ibon Sarasola, *Euskal Hiztegia* (932 orrialdea) Elkar

Solas honen hasteko, deigarria iruditu zait *talaia* hitz horren erabilpena; ba ote dugu Ipar Euskal Herrian zinez ikusmira berezia ematen digun goratasun zerbait? Edo zer inbasio mota igartzeko eraiki behar genuke dorre bat? Nondik hel daiteke eraso, Gipuzkoatik ala Biarnoti? Euskara batutik edo erdaratik? Galdera hutsalak dira dudarik gabe, baina argi utzi nahi nuke hasieratik ez dudala

euskalkien *salbatzea* edo beren purutasuna babestea helburu. Funtsezkoa iruditzen zaidana hizkuntza idatziaren eta mintzatuaren eremuak bereiztea da, ez gaitezen mintza idazten dugun bezala. Bi eremuek elkar elikatzen dute dudarik gabe; mihiak luma tinduz kargatzen duen bezala, lumak mihia zorrozten du. Baina utz diezaiozun bakoitzari bere lekua: idatzia selaurua balitz, mintzoa baratzea litzateke. Eta antzerkilari gisa baratzean egiten dut lan.

Bide beretik, oroitarazi nahi nuke begi bistakoa dena: antzerkian, hitza erabiltzen bada, errana izateko helburuarekin idazten da. Ahoskatua ez deno, hila da. Horregatik ez dugu antzerkia literatura sailean kokatzen. Antzerkigintza orain hemen eta benetan ari da, eta gero, hotz ez dena bero. Adibide baten hartzeko, tobera baten izkribua emanaldia bururatzean erre egiten da ontsalaz. Eta horrekin azpimarratu nahi dut antzerki baten sinesgarritasuna bera ahozkotasetatik garatzen duenaren araberakoa dela.

Azken xeheteria gisa, euskara batuak gure hizkuntzaren idazkera arautu eta finkatu baldin badu, euskalkiek dute ahozkotasetaren bizitasuna bermatzen, eta mintzalariaren bereizgarritasuna adierazten. Horregatik euskal antzerkiak, euskara batuarekin baino, euskalkiekin du hartu-eman gehiago. Eta berriz ere harira jiteko, Ipar Euskal Herrian, antzerkia euskalkiekin bideratu da beti. Pastoralak eta maskaradak xibereraz, tobera eta libertimenduak behe-nafarreraz. Idazleak aipatzeko, denek euskalkien hautua egin dute: Piarres Lartzabal, Antton Luku, Mattin Hirigoien, Guillaume Hirigoien, Pantzo Hirigarai. Euskara batuaren eragin handiena obra horien guzian inprimatzeko orduan mugatzen da: «nun» errango genukeenean «non» idatziz. Baina taula gainean «gira» erraten segituko dugu «gara» idatzia bada ere. Dario Fo-k Italiako *dialektoetan* antzezten du, Italiako nortasunekin bat egiteko. Ipar Euskal Herrian, oholtza euskalkien erreinua da.

1. EUSKALKIAK ANTZERKIAREN ULERMEN GILTZA GISA

1) Euskalkia ezaugarri gisa:

Antzerkiak hainbat joko kode garatzen dituen bezala, hizkuntzak erregistro ugari ditu.

Horri esker, pertsonaia bat sartu eta mintzatu orduko zein jite edo klase sozialetakoa den igartzen ahal zaio, zein izaera edo jenio duen.

Horri gehituko zaio euskalkiak berez ekartzen duen lehen informazioa: nongoa den. Ez da erreperio ttipi bat: denek dakigu zein garrantzitsua zaigun euskaldunoi bestea nondik heldu den jakitea, eta haren genealogia guzia ezagutzea. Ez dezagun pentsa kutzukeria hutsa denik. Memoria ordenatzeko erabiltzen diren tresnak dira: denboran eta espazioan kokatzen da pertsona oro, gure historia gogoan atxikitzen laguntzeko. Eta hori dena sekula deus idatzi gabe.

Ahozko transmisioaren iraunkortasuna segurtatzen duen bide bat da: erradazu nongoa eta zein familiatakoa zaren, eta zure iraganarekin lotuko zaitut, kontatu dizkidaten mila istoriorekin lotuko zaitut, elkarrekin partekatzen dugun Historian kokatuko zaitut.

2) Euskalkien eragina dramaturgian

Nahiz eta adibide guti izan, euskalki bat baino gehiago jokoan sar liteke obra berean. Kasu horretan, dramaturgiaren zentzu zonbait agerian uzteko balio izan lezake.

- Adibidez, Nafarroa Behereko talde batek xiberera sartzen duenean bere pertsonaia baten ahotik, hartaz trufa merkeak egiteko aukera baliatzen ahal du. Etikoki zuzena ez bada ere, xiberera elementu komiko gisa baliatu dute baxenabartar zonbaitek.
- Bestela, Euskal Herri guziaren isla bat agertzeko pretentsioa baldin badu obra batek, euskalki guziak agertokian elkar topatzea nahikoa izan daiteke. (Ikus *Errautsak* 6. agerraldia, 30. orrialdetik harat).
- Jende kategorien markatzeko ere balio izaten ahal du. Hala nola, elizgizonak behe-nafarrera jantziarekin mintza daitezke Lapurdin (seminarioetan behe-nafarreraz erakasten zen nagusiki), *jende xumeak* deitzen diren horiek lapurtarrez ariko direlarik. (Ikus *Iduzkilore* 3. ekitaldia, 3. agerraldia, 20. orrialdetik harat).
- Harreman mota berezi baten marka izaten ahal da. Aita bat bere alabari *xuka* ari zaionean, adibidez. (Ikus Antton Lukuren *Tu quoque fili*, laugarren agerraldia, 26. orrialdetik 27.era).

Beraz, hainbat joko kode obra berean ikusten direnean bezala (joko maskatua, naturalista, groteskoa, karikatura, pantomimoa, pailazoa...), euskalkien biderkatzeak irakurketa berezi bat emango dio obrari. (Ikus *Publikoari gorroto* 3. ekintza bukaeratik 7. ekintza hasiera arte).

Eta horretaz gain hizkuntzaren erregistroak ere gehitzen ahal dira (jantzia, ezikasia, hirikoa, baserrikoa, *molde xaharrekoa*, garaikidea...). Dramaturgia bat egituratzeko unean, euskalkien eta erregistroen ugaritasuna tresna izigarri eraginkorra izan daiteke: hizkuntzaren plano desberdinak erabiliz, dialogoaren perspektiba agerian uzten da.



2. EUSKALKIAK ANTZERKIAREN EGIATASUN BATEN BERME

1) Gezur sinesgarria

Denek dakigu antzerkian kontatzen digutena gezurra dela, baina sinestea dugu xede, eta gehienetan pagatzeko prest agertzen gara. Baina horrek bere ordaina merezi du: sinesgarritasuna. Maila horretan ere, antzerkigintzaren elementu guziak bilduko dira horren lortzeko, baina euskalkiek paper handia jokatzen ahal dute.

Euskara batuak helburu handiak lortu ditu. Gaur egun, Ondarroako mutil batek Izurako neskato bat ligatzen ahal du sobera ulertezinik gabe. Ez da guti. Baina nola taularatuko genuke egoera hori? Euskara batuak dena leundu eta ttipituko luke.

Euskara batuak bere lekua badu antzerkian, dudarik gabe. Baina nahi eta nahi ez bere berezitasun hori emango dio. Egoera berezi baten edo pertsonaia mota baten antzezteko ezin hobea izan daiteke, nola gerta. (Ikus *Publikoari gorroto* 7. ekintzatik harat).

2) Mintzoaren egiatasuna

Hor, antzerkiaren misterio bat aipatu nahi nuke: zerk ematen dio aktore

baten jokoari *egiatasuna*? Zerk sortzen du haren mintzoa, erreka itsasoan bezala haren ahotik entzuleen belarri guzietan isurtzen dena, aspaldi honetan jada entzuna bagenu bezala? Nik uste, euskalkiaren bizitasunean hartzen du iturri. Euskalkiak forma trinkoak hobesten ditu, hitzak beharrez laburtzen, toka/noka berezkoa du, bere ahoskatzearen arauak ditu («eztiat», «enuk»...). Eta horrek guziak, joko zuzenaren bitartez, egiazko bihurtzen du behin eta berriz errepikatu den dialogo edo monologia.

3) Esaldien egitura

Idazkerak bere arauak ditu, eta bere logikak. Esaldiaren mezua ordena ahal bezain irakurgarrian eraikitzen da. Baina ahozkoan, helburu berarekin, beste bide bat hartzen ahal du. Adibidez, «mesedez, ogia emadazu» eta «emadazu ogia, mesedez» esaldiek ez dute tonu bera inplikutzen, eta, ondorioz, ez dute zentzu bera hartzen. Eta zentzu hori barnetik usnatzeko gaitasuna ahozotasunak eta euskalkiaren praktikak bakarrik transmititzen ahal digu.



3. ANTZERKIAREN ERAGINA EUSKALKIEN ERABERRITZEAN

1) Antzerkia, euskalki garaikide baten lekua

Drama, ekintza, *errepresentazio* bat, bizi dugunaren arrabizitze bat da. Ez da harritzekoa beraz dialogoak gaur egun entzuten diren erran moldeetan oinarritzea. Eta neologismo edo erdarakada zombait taularatzea zilegi bihurtzen da, beren legitimitatea onarrarazten digu. Laneko harremanetan, ikastoletako kanpoko orduetan edo tabernetako solasetan entzuten den hizkera, berriz antzeztuz gero, euskalki horren baitan haizu bilakatzen da.

Adibide gisa, «hiper kontraktatua haiz» edo «debriaren bisaia ikusi tiat rorofilaren pizteko» edo «zertzeko zera hori geniala'un» ene adineko baxenabartarren artean normalizatu dira, gure euskalkiaren parte bilakatu.

2) Antzerkia, euskalkien arteko topalekua

Euskaldunon bilakaera baikorki irudikatzen, euskalkien arteko harremana areagotuz joango dela espero dut. Eta trukaketa horretarik euskara batuak eskas duen ahozketasun aberatsa mamitu behar genuke.

«Euskalki bakoitzak bere estetika du, eta euskara batuak ez du euskalki bakoitzaren estilo hori jaso oraindik. Euskalkiek euskara batua ikasi duten moduan, euskara batuak euskalkiak ikasi beharko ditu» (Joseba Sarrionandia, *Hitzen ondoeza*, 309 or. Txalaparta).

Ez da euskalkientzat antzerkia baino plaza egokiagorik. Hitza, ekintza, argia, musika, jantzia eta arnasa ere ematen dizkie. XIX eta XX. mendeko gosete eta miserien ondorioz Ameriketara elkartu diren jatorri ezberdinetako euskaldunek ez omen zuten arazo izpirik elkarren artean ulertzeko. Lana eta beharra partekatzeak muga gehienak zartarazten ditu. Bada garai hartako egunkari andana bat artikulu batetik bestera pasatuz, euskalki batetik bestera garamatzatenak, nehongo konplikaziorik gabe. Eta antzerkiak nomadismoan dituen erroak kontutan harturik, migrante horien mundua bezain euskalkiz eleanitza izan beharko luke. Eta gure herriak partekatzen dituen beharrak asetzen baditu, bere ezinak ekinez egingen ditu.

Ezin dut bukatu gure mamuak aipatu gabe. Betiko mamu berak. Antzerkiaren praktika aditu eta profesionalen esku uzten badugu, gureak egin du. Alta, nik ere horretan dut ene ogibidea, eta nonbait han horregatik pagatzen dizkidazue lerro hauek. Beste norbaitenak hartuko ditut beraz, omorea argituko dizuelakoan:

“Urteak pasatu dituzte esplikatzen kultura batzuen afera izan behar zela, profesionalizatu behar direla gauza guziak; jendeak ulertu du bozkatzea bezala dela. Egun horretan ez dugu gure herritartasunaren froga ematen, baina bozka salan uzten. Abdikatzen dugu lau edo bost urtetarik, arintzen gara, gure erantzunkizuna kritika jomuga izan den baten bizkar ezartzeko, gure orde, gure gauzez okupatzeko. Kultura mailan berdin. Egiturak hor dira gure lanaren egiteko. Egin bezate eta gu onddoketara goazen. Jendeak delegazio hori onartu du. Lehen kultura adin bereko gazte guziei eskatzen zitzaien zerga zelarrik. Eta hori mozkinenez ordaintzen zen, ez diruz baina ekintzaz. Maskarada, Libertimendu, herriko bestetan ez da besterik. Gazteria batek erakusten du heldutasunaren atarian zer egiteko gai den: ideiak, antolakuntza eta beren ber ibiltzeko ahala. Herritartasuna”.

Antton Luku, *Euskal kultura?* (65 eta 66. orrialdeak) Pamiela